

Bertso batean *poto* egitea oin bat **esanahi berarekin** errepikatzea da.

Bertso bakar batean bi oinekin **topo**: horri esaten zaio egitea *poto*. Arreta jar ezazu behingoz, **segapoto** deskuidatu ezkerro baietz egin *poto*!



ETXEKO LANIK EZ!



Poto konpon

Bertso bakoitzean, potoa aurkitu eta konpontzen saiatuko gara. Horretarako, azpian ditugun oinak erabil ditzakegu.

Eskolan ordu pila pasatzen **ditugu** ta asko ikastea dugu guk **helburu** baina etxerako ere beti lana **dugu** ta pasatzen ditugu hamaika **helburu**.



OINAK

- APURU
- GU
- INGURU
- BURU

Etxean guk lanean denbora **igaro** jolasteko aukera guztia **akabo** gure erabakia oso argi **dago** guretzako nahi dugu denbora **igaro**.



OINAK

- GEHIAGO
- GUTXIAGO
- KLARO
- LUZARO

Nahiz batzuetan garen gu nahiko **aldrebes** klasean jartzen dugu nahikoa **aldrebes** ta bukatuko dugu ozenki **esanez**: eskolatik kanpora lanik ez **mesedez!**



OINAK

- LEGEZ
- BABES
- ERREZ
- INTERES